Debako Udala

2019SPLE0012
12.Bilera: OHIKOA 2019/09/26

**UDALBATZA. BILERA-AKTA**
ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.:12
EGUNA: 2019/09/26 (osteguna)
HASIERA ORDUA: 19:00
AMAIERA ORDUA: 19.35
TOKIA: Debako Udaleko Udalbatza Aretoa

Nº :12
DÍA: 26/09/2019 (jueves)
HORA DE COMIENZO: 19:00
HORA DE FINALIZACIÓN: 19.35
LUGAR: Salón de Plenos del Ayuntamiento de Deba

**BERTARATUAK:**

Gilen García Boyra, alkatea
EH Bildu udal taldea
Itziar Irizar Beristain (bozeramailea)
Aritz Larrañaga Unanue
Antxon Etxeberria Larrea
Nerea Arrizabalaga Badiola
Antxoka Elorza Altuna

Debarren Ahotsa udal taldea
Pedro Mª Bengoetxea Loiola (bozeramailea)
Ane Miren Egidazu Elosua
Enrique Salgado Alcorta
Isidor Lamariano Arostegi

EAJ-PNV udal taldea
Iñigo Cambronero Alkorta (bozeramailea)
Miren Esnal Laskibar
Eneritz Gómez Lázaro

Idazkaria: Jorge González Endemaño

**ASISTENTES:**

Gilen García Boyra, alcalde
EH Bildu Grupo municipal
Itziar Irizar Beristain (portavoz)
Aritz Larrañaga Unanue
Antxon Etxeberria Larrea
Nerea Arrizabalaga Badiola
Antxoka Elorza Altuna

Grupo municipal Debarren Ahotsa
Pedro Mª Bengoetxea Loiola (portavoz)
Ane Miren Egidazu Elosua
Enrique Salgado Alcorta
Isidor Lamariano Arostegi

Grupo municipal EAJ-PNV
Iñigo Cambronero Alkorta (portavoz)
Miren Esnal Laskibar
Eneritz Gómez Lázaro

Secretario: Jorge González Endemaño

**ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:**

Saio hasieran, aurrerantzean saioak grabatu eta udaleko web orrian jendaurrean ipiniko direla berri ematen du alkateak. Bidaltzera behartuta gauden beste administrazioei ere bidaliko zaizkie.

**TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS:**

Al comienzo de la sesión, el alcalde informa de que a partir de este pleno, las sesiones serán grabadas y expuestas a la ciudadanía en la página web municipal, y remitidas a las demás administraciones a las que legalmente estamos obligados a ello.

**1. Aurreko bilkurei dagozkien akten zirriborroa onartzea, hala badagokio.**

Bozkatu ondoren Udalbatzak aho batez onartzen du aurreko saioko akta.

**2. Alkatetza Dekretuak**

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira ondorengoaz:

**1. Aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión anterior**

Sometida a votación, el Pleno aprueba por unanimidad el acta de la sesión anterior.

**2. Decretos de Alcaldía**.

Los asistentes quedan informados de las siguientes resoluciones:

| | | | |
|---|---|---|---|
| 88 | 2019/04/26 | Joseba Egaña Urkiriren aldeko 12 hilabetetako soldata prima berezia ordaintzea, borondatezko erretiroa hartu izanagatik. | |
| 89 | 2019/04/29 | Herriko kale batzuen garbiketa berezia egitea esleitzea | 2019SCOU0019 |
| 90 | 2019/04/29 | OTA zaindariaren kontratazioa, 2019ko maiatzaren 1etik 26ra. | |
| 91 | 2019/05/02 | Turismo bulegoko harrera eta komunikaziorako administrari laguntzaileen lan poltsa osatzea. | 2019SEBT0002 |
| 92 | 2019/05/02 | Biztanlearen erroldan ofiziozko baja ematea | 2019SEBO0010 |
| 93 | 2019/05/03 | Eguneko Zentroko langile baten familiarteko baten ospitaleratzeagatiko baimena ordezkatzeko kontratazioa: 2019ko maiatzaren 3an. | |
| 94 | 2019/05/08 | Prebentzioko ordezkaria izendatzea | |
| 95 | 2019/05/09 | Eguneko Zentroko langile baten oporrak ordezkatzeko kontratazioa: 2019ko maiatzaren 10ean. | |
| 96 | 2019/05/10 | Kultur programak edo jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteei zuzendutako diru-laguntzen deialdia. | |
| 98 | 2019/05/13 | J.A Iñurrieta Labayeneri ordainketa bat egitea Astillero kalean gertatutako erorketaren ondorioz eragindako kalteordain gisa. | 2018SRRP0003 |
| 101 | 2019/05/13 | Nieves Maidagan Barrenechea artisauari ordainketa bat agintzea. | |
| 102 | 2019/05/13 | Mugi gela egitasmoa aurrera eramateko Eibar Igerixan kirol klubari kontratua esleitzea 2019ko urtarriletik abuztura. | 2019SCOU0020 |
| 103 | 2019/05/13 | Zoladurako kutxatila metalikoetan ez irristatzeko tratamendua ematea. | 2019SCOU0021 |
| 104 | 2019/05/13 | Debako Aldats pilotalekuko led argiteria aldatzea | 2019SCOU0022 |
| 105 | 2019/05/13 | Debako Osio eremuari dagokion ingurumen jasangarritasunaren txostena osatzeko ikuskatze programari eta bideragarritasun ekonomikoari buruzko atalen idazketa Haizea Ikerketak, S.L.ri esleitzea | 2019SCOU0023 |
| 106 | 2019/05/14 | Debako zezen plazaren eta entzierroko ibilbidearen muntaketa eta desmuntaketa lanak esleitzea. | 2019SCOU0024 |
| 107 | 2019/05/14 | Debako Artzabal auzoko rotonda apaintzea. | 2019SCOU0025 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 108 | 2019/05/14 | Debako hondartzako eta portuko komunetako mantentze lanak egitea esleitzea. | 2019SCOU0026 |
| 109 | 2019/05/14 | Biztanlearen erroldan ofiziozko baja ematea | |
| 110 | 2019/05/16 | Debako hilerri berria obraren Laneko Segurtasun eta Osasun Planaren onarpena. | |
| 111 | 2019/05/16 | Emakume eta gizonen arteko Berdintasun zerbitzurako asistentzia teknikoa ematea. | 2019SCOU0027 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 112 | 2019/05/27 | Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga | |
| 113 | 2019/05/21 | Sorosleen kontratazioa 2019 | 2019SCOU0030 |
| 114 | 2019/05/21 | Udalekuen koordinatzaile berriaren izendapena | 2018SCOU0005 |
| 115 | 2019/05/22 | Biztanlearen erroldan ofiziozko baja ematea | 2019SEBC0006 |
| 116 | 2019/05/24 | Eguneko Zentroko langile baten oporrak ordezkatzeko kontratazioa: 2019ko maiatzaren 24ean. | |
| 117 | 2019/05/27 | 3 udaltzain bitarteko funtzionario izendatzea lan pilaketagatik, gehienez 6 hilabetetarako. | |
| 118 | 2019/05/29 | Ur kiroletako jarduerak, Yako Surf Eskola | |
| 119 | 2019/05/30 | OTA zaindariaren kontratazioa 2019ko ekainaren 1etik irailaren 23ra. | |
| 120 | 2019/05/30 | Segregazioa Gaztañegi | |
| 121 | 2019/05/30 | Etxebizitza tasatua kalifikazioa errekerimentua | 2017ULOK0001 |
| 122 | 2019/05/30 | 32/19 ikerketa eginbideetan, udalaren ordezkaritza eta defentsarako, legelari eta prokuradorea izendatzea. | |
| 123 | 2019/05/30 | Familia eskuhartze programa- Zehar | 2019SCOU0031 |
| 124 | 2019/5/31 | Zubiaren kontratazioa OTA | |
| 125 | 2019/6/3 | Etxebizitza soziala. Gastu onarketa partziala | |
| 126 | 2019/6/3 | Eskuduntza eskuordetzen duen ebazpenaren derogazioa | |
| 127 | 2019/06/03 | Gizarte Larrialdirako dirulaguntzak ematea | |
| 128 | 2019/06/03 | Etxez etxeko laguntza zerbitzua ematea | |
| 129 | 2019/06/04 | Lehenengo erabilera lizentzia Quivacolor S.L. | 2015UROM0006 |
| 130 | 2019/06/04 | Lehenengo erabilera lizentzia Olano Baserria | 2011UROM0010 |
| 131 | 2019/06/04 | Lehenengo erabilera lizentzia Inversiones | 2016UROM0014 |
| 132 | 2019/06/04 | Licencia de obra mayor Spicer Ayra Cardan S.A. | 2019UROM0013 |
| 133 | 2019/06/06 | Obra txikia. Lizentzia.Fatxada konpontzea. | 2019UOME0046 |
| 134 | 2019/06/06 | Obra txikia. Lizentzia.Baserriko teilatua. | 2019UOME0058 |
| 135 | 2019/06/06 | Obra txikia. Lizentzia.Komunetako erreforma.229 AD ZUZENTZEN DA KOPURUA GAIZKI DAGO | 2019UOME0057 |
| 136 | 2019/06/06 | Obra txikia. Dendako atea aldatzea. | 2019UOME0043 |
| 137 | 2019/06/06 | Obra txikia.Komuneko erreforma eta etxeko lurra aldatzea | 2019UOME0059 |
| 138 | 2019/06/06 | Obra txikia.Komuneko erreforma. | 2019UOME0060 |
| 139 | 2019/06/06 | Obra txikia.Berogailu ekologikoa instalatzea.Calbetón | 2019UOME0064 |
| 140 | 2019/06/06 | Obra txikia.Komuneko reforma.Latzurregi kalea 8-5ºA | 2019UOME0065 |
| 141 | 2019/06/06 | Obra txikia.Fatxada berritzea.Itziar bidea 4 | 2019UOME0068 |
| 142 | 2019/06/07 | Turismo bulegoan langile bat bitarteko funtzionari izendatzea 2019ko ekainaren 8tik irailaren 30era. | |
| 143 | 2019/06/13 | Obra txikia.Bañera dutxagatik ordezkatzea | 2019UOME0071 |
| 144 | 2019/06/14 | Obra txikia surf eskola. Hondartza kalea 20, behea | 2019UOME0070 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 145 | 2019/06/19 | Obra txikia .Komuna eraberritzea. Astillero 6, 4ezk | 2019UOME0069 |
| 146 | 2019/06/20 | Alkateordeen izendapena | |
| 147 | 2019/06/21 | Gizarte zerbitzuetan langile baten lan baimena ordezkatzeko langile bat kontratatzea, 2019ko ekainaren 24tik 25era. | |
| 148 | 2019/06/25 | Sorosleen kontratazioa 2019: esleipena | 2019SCOU0030 |
| 149 | 2019/08/26 | Beheko igogailuaren konponketa | 2019UOVA0006 |
| 150 | 2019/06/26 | Enplegu sustatzeko tokiko ekintzetarako 2019ko: 2 peoi jornada osoa | |
| 151 | 2019/07/03 | Parkin zaindariaren kontratazioa 2019ko uztailaren 6tik irailaren 1era. | |
| 152 | 2019/06/28 | Eguneko Zentroko langile baten oporrak ordezkatzeko kontratazioa: 2019ko uztailaren 1etik irailaren 1era. | |
| 153 | 2019/06/28 | Etxebizitza tasatua onartu: Agirretxe 21 | |
| 154 | 2019/07/01 | Idoia Álvarez Acosta 100% lanaldian alta | |
| 155 | 2019/07/03 | Alkateak bere eskuduntzak berreskuratu | |
| 156 | 2019/07/05 | Obra txikia. Teilatua berritzea. Galtzada 2 | 2019UOME0063 |
| 157 | 2019/07/05 | Obra txikia. Sukaldea komuna eta leihoak berritzea. Erronda kalea 7, 2.esk | 2019UOME0073 |
| 158 | 2019/07/05 | Obra txikia. La Lubina elkartean parrila aldatzea | 2019UOME0074 |
| 159 | 2019/07/05 | Obra txikia. Mogel kalea 14 2Bko begiratokia aldatzea | 2019UOME0075 |
| 160 | 2019/07/05 | Obra txikia. Mogel kalea 14 3Bko begiratokia aldatzea | 2019UOME0076 |
| 161 | 2019/07/05 | Obra txikia.Lersundi 31ko Teilatua eta fatxada birgaitzea | 2019UOME0010 |
| 162 | 2019/07/05 | Obra txikia. Eleizako sakristiako berotze sistema konpontzea | 2019UOME0077 |
| 163 | 2019/07/05 | Obra txikia. Kortaberri baserriko teilatua konpontzea | 2019UOMR0072 |
| 164 | 2019/07/05 | Obra txikia. Agirretxe13, 1 ezk.ko dutxa ordezkatzea. | 2019UOME0079 |
| 165 | 2019/07/05 | Obra txikia Portu kalea 3, 3cko leihoak aldatzea | 2019UOME0080 |
| 166 | 2019/07/05 | Espainiako Minbiziaren Aurkako Elkarteari diru-bilketa egiteko baimena ematea | |
| 167 | 2019/07/05 | Obra txikia. Endoia auzoa 4Bko fatxada konpontzea | 2019UOME0081 |
| 168 | 2019/07/05 | Obra txikia Itizar bidea 11, 2A etxebizitzako leihoak aldatzea. | 2019UOME0082 |
| 169 | 2019/07/05 | OTA makinaren erosketa | 2018PMTR0004 |
| 170 | 2019/07/08 | OTA lektoreen alokairua: zuzendu prezioa | 2018PMTR0004 |
| 171 | 2019/07/08 | OTA makina alokatu | 2018PMTR0004 |
| 172 | 2019/07/17 | Obra txikia. Gasa instalatzea. Lersundi kalea 25 | 2019UOME0078 |
| 173 | 2019/07/09 | Gemma Usobiaga Unanue. Lehen erabilera lizentzia | 2014UROM0012 |
| 177 | 2019/07/09 | Mari Jose Ostolaza %100 lanaldia | |
| 179 | 2019/07/11 | Tokiko eskumenak delegatu | |
| 180 | 2019/07/12 | Tokiko batzordekideen izendapena | |
| 181 | 2019/07/15 | Alkatetza dekretua Lersundi 4 hitzarmen urbanistikoa | |
| 182 | 2019/07/15 | Animali arriskutsu izan daitekeen lizentzia<br><br>Andoni Molpeceres | |
| 183 | 2019/07/17 | Biztanlearen erroldan ofiziozko baja ematea | 2019SEBO0013 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 184 | 2019/07/24 | Mikel Egaña kontratua | |
| 185 | 2019/07/24 | Elizburu Birpartzelazio proiektuaren 1.aldaketaren behin behineko onarpena | 2019UREP0001 |
| 187 | 2019/07/29 | Obra txikia. Hondartza 10 eta Lersundi 30 eko eraikinen EITko zuzenketak gauzatzea. | 2019UOME0083 |
| 188 | 2019/07/29 | Obra txikia. Itur kalea 20, 2º. Sukaldea eta komuna berritzea | 2019UOME0084 |
| 189 | 2019/07/29 | Obra txikia. Ifar kalea 11, 4esk. Sukaldea berritzea | 2019UOME0085 |
| 190 | 2019/07/29 | Obra txikia.Gurutze kalea 1. Komuna eta sukaldea berritzea | 2019UOME0088 |
| 191 | 2019/07/29 | Egile Mechanics, S.L. neurri zuzentzaileak eskatzea | 2018URLA0004 |
| 192 | 2019/07/29 | Gure Abokatuak aholkularitza juridikoa | 2019SCOU0035 |
| 193 | 2019/07/29 | Hondartzako kabinetako ur beroko instalakuntzaren mantenua 2019/05/03tik 2019/12/31era egitea esleitzea. | 2019SCOU0038 |
| 194 | 2019/07/29 | Hondartzako kabinetako ur beroko instalakuntzaren legionelaren aurkako tratamentua 2019/05/03tik 2019/12/31era egitea esleitzea. | 2019SCOU0037 |
| 195 | 2019/07/29 | Hondartzako kabinetako ur beroko instalakuntzaren karearen aurkako tratamentua 2019/05/03tik 2019/12/31era egitea esleitzea. | 2019SCOU0036 |
| 197 | 2019/07/29 | Elizburuko A.300.4 lursailean 29 etxebizitza eta garajeak. Baimenaren baldintza kentzea. | 2017UROM0002 |
| 198 | 2019/07/29 | Elizburuko A.300.6 lursailean 20 etxebizitza eta garajeak egiteko baimena ematea. | 2018UROM0030 |
| 199 | 2019/07/29 | Gaintza Etxeberri lursailaren bereizketa | 2019URLS0004 |
| 200 | 2019/07/29 | Beko-zona Kortaberri 14.1 lursailaren bereizketa | 2019URLS0003 |
| 202 | 2019/07/29 | MB Technical Solutions SL. Pabilioia barrutik egokitzeko proiektua eta jardueraren justifikapena. | 2019UROM0010 |
| 203 | 2019/07/29 | Usabiartzako harrobiko lur betelanaren gauzatze proiektua. | 2018UROM0028 |
| 204 | 2019/07/29 | Urberuaga meategiko eraikinak eraistea | 2019URDE0002 |
| 206 | 2019/07/30 | Obra txikia. Itziar bidea 5, 2E. Leihoak aldatzea | 2019UOME0087 |
| 207 | 2019/07/30 | Liburuzainaren kontratazioa 2019ko abuztuaren 1etik irailaren 30era | |
| 208 | 2019/07/30 | Egile Mechanics, S.L. neurri zuzentzaileak eskatzea | 2019URLA0002 |
| 209 | 2019/08/01 | OHZn errekargua kentzeko eskerak onartzea | |
| 210 | 2019/08/01 | OHZn errekargua kentzeko eskaerak ez onartzea | |
| 211 | 2019/08/01 | Ibilgailuen gaineko zergaren salbuespen eskaerak onartzea | |
| 212 | 2019/08/01 | Zorraren gerorapen eskaerak onartzea | |
| 213 | 2019/08/01 | Maria Isabel Iriondo ondare erantzukizun erreklamazioa onestea | 2019SRRP0001 |
| 214 | 2019/08/01 | Izenemate okerragatik biztanleen erroldan baja ematea | 2019SBAY0003 |
| 215 | 2019/08/02 | Obra txikia. Patioko fatxada margotzea. Anguleru 2 | 2019UOME0090 |
| 216 | 2019/08/02 | Plaza muntatzaileen kontratua | |
| 218 | 2019/08/06 | Brigadako 2 langile kontratatzea zezen plazan hainbat lan egiteko | |
| 219 | 2019/08/07 | Obra txikia. Leihoak aldatzea. Portu kalea 5, 1A | 2019UOME0091 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 220 | 2019/08/07 | Obra txikia. Leihoak aldatzea. Itziar bidea 5, 1E | 2019UOME0092 |
| 221 | 2019/08/07 | Obra txikia. Sukaldeko atea aldatzea. Portukalea 3, 3C | 2019UOME0093 |
| 222 | 2019/08/07 | Obra txikia. Begiratokia aldatzea. Itziar bidea 5,3E | 2019UOME0094 |
| 223 | 2019/08/07 | Obra txikia. Hondar-urentzat hobi septikoa kanalizatu eta instalatzea. Txerturi Goikoa | 2019UOME0095 |
| 224 | 2019/08/14 | Zezen plazako torilak zaintzeko pertsona bat kontratatzea | |
| 226 | 2019/08/19 | Debako hilerri berria obraren Laneko Segurtasun eta Osasun Planaren eranskinaren onarpena. | 2019UOVA0003 |
| 227 | 2019/08/26 | Debako hondartzako kudeaketan ezarritako ingurumen kudeaketa sistemaren barne ikuskaritza | 2019SCOU0041 |
| 228 | 2019/08/29 | Eguneko zentroko kafetegia ustiatzeko kontratazio espedientea irekitzea onartu | 2019SCOU0040 |
| 229 | 29/08/2019 | 135AD akatsak zuzentzea. | |
| 230 | 29/08/2019 | Sokoak jarritako berraztertze-errekurtsoari erantzuna | |
| 231 | 29/08/2019 | Alfonso Morgadori audientzia tramitea ematea emergentzia dirulaguntzen inguruan. | |
| 233 | 2019/09/03 | Eguneko zentroko langile baten lan baimena ordezkatzeko langile bat kontratatzea irailaren 3tik 5era. | |
| 234 | 2019/09/02 | Eguneko zentroko taberna ustiatzeko lizitazioa onartu | 2019SCOU0040 |
| 235 | 2019/09/09 | Obra txikia. Eguzki plakak jartzeko baimena. INEKO. | 2019UOME0096 |
| 236 | 2019/09/10 | Eguneko Zentroko langile baten oporrak ordezkatzeko kontratazioa: 2019ko irailaren 12tik irailaren 27ra. | |
| 237 | 2019/09/10 | Agirretxetik Mogelera doan igogailuaren berrikuntza lanak | 2019UOVA0007 |
| 238 | 2019/09/10 | Diru bilketako zenbait ordainagiri baliogabetzea | |
| 239 | 2019/09/11 | Biztanlearen erroldan ofiziozko baja ematea | |
| 240 | 2019/09/11 | Biztanlearen erroldan ofiziozko baja ematea | 2019SEBO0014 |
| 241 | 2019/09/11 | Elizburuko A.300.4 lursailean eraikitako 29 etxebizitza eta garajeen lehen erabilera baimena ematea | 2017UROM0002 |
| 242 | 2019/09/12 | Ifarkale 13ko igogailua 0 kotara jaisteko baimen ematea | 2019UROM0014 |
| 243 | 2019/09/12 | Astillero 21eko garajeko lokalaren bereizketa baimena | 2019URLS0007 |
| 244 | 2019/09/12 | Nafarroa plaza 1, B ataria, 2.B etxebizitzako sukaldea eta komuna berritzeko baimena ematea. | 2019UOME0097 |
| 245 | 2019/09/12 | Itziarko Industrialdean 21 Q-A lursailean kokatua dagoen Mutua Universal Mugenateko aparkalekuan hormigoia botatzeko baimena ematea. | 2019UOME0098 |
| 246 | 2019/09/12 | Astillero kalea 1 eraikineko erkidegoaren terraza konpontzeko baimena ematea. | 2019UOME0099 |
| 247 | 2019/09/12 | Angulero kalea 1, 1eskubiko etxebizitzako sukaldeko tabikea eraisteko baimena ematea. | 2019UOME0100 |
| 248 | 2019/09/12 | San Josepe kalea 2, 4.Ako etxebizitza eraberritzeko baimena ematea. | 2019UOME0101 |
| 249 | 2019/09/12 | Latzurregi kalea 8 erdisotoan (2.sotoa) leihoak irekitzeko baimena ematea. | 2019UOME0102 |
| 250 | 2019/09/12 | Hondartza kalea 15, 4.B etxebizitzan komuna, sukaldea eta pasilloko erreforma egiteko baimena ematea. | 2019UOME0103 |
| 251 | 2019/09/12 | Biztanleen errolda iraungitze baja | 2019SEBC0016 |

**3. Obrak, Zerbitzuak, Ingurumena eta Tokiko Agenda 21 (zaborrak barne) batzordeko bileren maiztasuna eta data eta orduaren aldaketa onartzea, hala badagokio.**

**3. Aprobación, si procede, de la frecuencia de las reuniones y del día y la hora de la Comisión de Obras, Servicios, Medioambiente y Agenda Local 21 (incluidas basuras).**

Bozkatu ondoren, Udalbatzak aho batez onartzen du Obrak, Zerbitzuak, Ingurumena eta Tokiko Agenda 21eko bilerak bi hilabetez behin ospatzea. Bilera egiten den hilabeteko lehen ostegunean 18:00etan.

Sometido a votación, el Pleno aprueba por unanimidad celebrar las reuniones de la Comisión de Obras, Servicios, Medioambiente y Agenda Local 21: Cada dos meses, el primer jueves del mes en el que se celebra, a las 18.00h.

**4. 2 zenbakidun kreditu aldaketa. Debako Udala.**

**4. Modificación de créditos nº2. Ayuntamiento de Deba.**

Bozkatu ondoren, Udalbatzak aho batez onartzen du proposaturiko kredituen 2 zenbakidun aldaketa.

Sometido a votación, el Pleno aprueba por unanimidad la modificación de créditos nº2 propuesta.

| Kap | Gastuen egoera | € |
|---|---|---|
| 2 | Etxez-etxeko laguntza zerbitzua | 30.000 |
| 4 | Gizarte-beharrizan Larrialdietarako (AES) | 15.000 |
| 6 | Osio 2ko eraikina eraistea | 65.000 |
| 6 | Eguneko Zentroko pasabidea | 25.500 |
| | **Guztira** | **135.500** |
| Kap | ERABILITAKO BALIABIDEAK | |
| 7 | Gipuzkoako Foru Aldundia | 25.500 |
| 8 | Altxortegi gerakina | 110.000 |
| | **Guztira** | **135.500** |

**5. 2020. Urterako taxien tarifen proposamena onartzea, hala badagokio.**

**5. Aprobar, si procede, la propuesta de tarifas de taxis para el año 2020.**

Bozkatu ondoren, Udalbatzak aho batez onartzen du 2020. Urterako taxien tarifak ezartzea.

Sometido a votación, el Pleno aprueba por unanimidad el establecimiento de las tarifas de taxis para el año 2020.

| 2020ko HIRI BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA<br>TARIFA URBANA 2020 | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| TARIFA 1 | | | TARIFA 2 | | |
| Gutxieneko tarifa | Egindako kilometroa | Itxaron ordua | Gutxieneko tarifa | Egindako kilometroa | Itxaron ordua |
| Tarifa mínima | Kilómetro recorrido | Hora de espera | Tarifa mínima | Kilómetro recorrido | Hora de espera |
| 5,2544 | 1,3158 | 17,5865 | 5,7214 | 1,4562 | 18,4926 |

**6. Itziarko N-634 bidegurutzean dagoen lurzorua Gipuzkoako Foru Aldundiari lagatzea.**

Bozkatu ondoren, Udalbatzak aho batez onartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiari lagatzea Itziarra doan GI-3210 eta Itsaspera doan GI-3291 errepideen eta N-634 errepidearen arteko Itziar gaineko bidegurutzean goranzko zuzeneko bideadarra duen biribilgunearen proiektua (1-I-42/2019) egiteko, 10. eranskinean eta 14. planoan zehazten den, eta Debako Udalaren titulartasunekoa den 929m2-ko lurzatia (5492002 erreferentzia katastraleko hiri-lurzatia).

**6. Cesión de terreno situado en el cruce de la N-634 en Itziar a la Diputación de Gipuzkoa.**

Sometido a votación, el Pleno aprueba por unanimidad ceder a la Diputación Foral de Gipuzkoa, el terreno de 929m2 cuyo titular es el Ayuntamiento de Deba (terreno urbano de referencia catastral 5492002), situado en el cruce entre las carreteras GI-3210 dirección Itziar y GI-3291 dirección Itxaspe y la N-634, para ejecutar el proyecto (1-I-42/2019) de la rotonda del ramal de subida a Itziar

**7. Udaletxearen funtzionamendua eta egungo lan karga. Liberazio proposamena.**

Proposamena ez da bozkatzen.

Hala ere, Udalbatzak aho batez onartzen du gaia aztertzea eta adostea horretarako zehazki alderdi politiko desberdinekin egingo diren bileretan.

**7. Funcionamiento del Ayuntamiento y carga actual de trabajo. Propuesta de liberación.**

La propuesta no se somete a votación.

El pleno, sin embargo, aprueba por unanimidad el análisis y acuerdo de la cuestión en reuniones específicas que se celebrarán entre las diferentes formaciones políticas.

**8. Kutxagestion Zerbitzuak SLU eta Debabarreneko udalen arteko hitzarmena. (ikusi atxikitua)**

**8. Aprobar, si procede, el convenio entre Kutxagestión Zerbitzuak SLU**

Bozkatu ondoren, Udalbatzak aho batez onartzen du Kutxagestion Zerbitzuak SLUrekin hitzarmena sinatzea.

**9. Galderak eta eskaerak.**

- Aurreko Udalbatzan Enrique Salgadok eskatutako informazioa.
Aritzek eskuratzen du eskatutako informazioa.

**y los municipios del Bajo Deba. (ver anexo)**

Sometido a votación, el Pleno aprueba por unanimidad la firma del convenio con Kutxagestión Zerbitzuak SLU.

**9. Ruegos y preguntas.**

- Información solicitada por Enrique Salgado en el pleno anterior.
Aritz facilita la información solicitada.

| SAN ROKE JAIAK | |
|---|---|
| LANGILE FINKOAK | |
| SOLDATAK | 11.564,00€ |
| GIZARTE SEGURANTZAK | 3.700,00€ |
| BEHIN BEHINEKO LANGILEAK | |
| SOLDATAK | 9.599,00€ |
| GIZARTE SEGURANTZAK | 3.722,00€ |
| LANGILEAN GUZTIRA | 28.585,00€ |
| ASKETA ERREFORMAK S.L. | 15.972,00€ |
| PLAZAREN MUNTAIA GUZTIRA | 44.557,00€ |
| JAIEN AURREKONTUA | 88.000,00€ |
| DENERA | 132.557,00€ |

- Pedrok informazioa eskatzen du eta bere harridura agertzen du Itziarko Tokiko Entitate Txikiak langile bat administrazio lanak egiteko kontratatzeari buruz.

- Iñigo Cambronerok informazioa eskatzen du ETS proiektuaren egungo egoerari buruz.

Gilen: Bilera bat adostu dugu urriaren hasierarako.
Nire iritziz, bilera hori hasiera bat izango da. Gure gehiengoak eskatzen saiatuko naiz, baina negoziazioa borroka bat izango dela uste dut.
Proiektua oraindik lizitatu gabe dago. Lizitatzeko prozesu bati hasiera eman ziotela esan ziguten. Jakinarazpen hori jaso genuenean, prozesu hori gelditu

- Pedro solicita información y muestra su sorpresa en relación con la contratación para labores administrativas de un trabajador por parte de la Entidad Local de Itziar.

- Iñigo Cambronero solicita información sobre el estado actual del proyecto ETS.

Gilen: Hemos acordado una reunión para principios de octubre.
Considero que esa reunión será un comienzo. Trataré de pedir nuestros máximos, pero creo que la negociación va a ser una pelea.
El proyecto está aún sin licitar. Nos informaron de que daban comienzo a un proceso para licitar. Cuando recibimos esa notificación les enviamos

zezaten eskaera bat bidali genien. Epe barruan egin genuenez, lizitatu aurretik galdetu egin beharko digute.

una solicitud para que pararan ese proceso. Y como lo hicimos dentro del plazo, nos tendrán que preguntar antes de licitar.

Luziano arkitektoaren ustez, alderdien artean batzea lortzen badugu errazagoa izango da duten proiektua gelditzea.

Luciano, el arquitecto considera que si conseguimos unión entre los partidos va a ser más fácil conseguir paralizar el proyecto que tienen.

- Iñigo Cambronerok, alkatetza lantzen ari den Gobernu Planari buruz informazioa eskatzen du eta bere laguntza eskaintzen du.

- Iñigo Cambronero solicita información y ofrece su colaboración con respecto a la elaboración del Plan de Gobierno en el que está trabajando la alcaldía.

Oso ondo iruditzen zaigu zuen parte-hartze eskaintza Gobernu plan honetan. Hori da gure asmoa eta teknikariekin, udaleko langileekin eta gizarte erakundeekin partekatu nahi dugu.

Nos parece muy bien vuestro ofrecimiento de participación en la elaboración del plan. De hecho ese es nuestro propósito, y de hecho la intención es compartirlo tanto con los técnicos, los trabajadores del ayuntamiento, así como con los organismos sociales.

Udal aurrekontuen eztabaida eta onarpenarekin lotu nahi dugu. Zentzu horretan, bai PNV eta bai DA gonbidatuta daude parte hartzera.

Queremos unirlo con el debate y la aprobación de los presupuestos municipales. Y en ese sentido tanto PNV como DA están invitados a tomar parte.

Alderdi biak hartzen diren neurri gehienekin ados izango zaretela uste dut. Beraien %80arekin esango nuke.

Creo que ambos partidos estarías de acuerdo con la mayoría de las medidas recogidas, me atrevería a decir que con el 80% de ellas.

Besterik gabe, bilera 19:35an bukatu zen. Eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota geratzeko, nik, idazkari naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egiten dut, lehendakariak ontzat emanda.

Sin más asuntos que tratar, terminó la reunión a las 19:35 horas. Para que conste lo tratado y acordado, redacto y firmo esta acta con el visto bueno del presidente.

Jorge Gonzalez Endemaño
Behin-behineko idazkaria / Secretario accidental

DEBAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE DEBA

kutxa FUNDAZIOA

**KONTRATUA**

Donostian, 2019ko uztailaren 19an.

**BILDURIK**

Alde batetik, KUTXAGESTION ZERBITZUAK SLU (aurrerantzean, KUTXA EKOGUNEA), B-75146043 IFZ duena eta helbidea Donostiako Mikeletegi Pasealekuko 43. zenbakian duena (PK: 20009). Ekitaldi honetan Ander Aizpurua Susperregui jauna izango da haren ordezkaria, adinez nagusia eta NAN zk.: 44168858A zenbakia duena. Hark Guadalupe María Inmaculada Adánez García Notario andrearen aurrean (protokolo-zenbakia: 672) 2018ko apirilaren 5ean emandako ahalmenaren indarrez jarduten du.

Bestetik, Debabarreneko Eibar, Elgoibar, Soraluze, Deba eta Mutrikuko Udalak (aurrerantzean, Debabarreneko Udal taldeak), ondorengo ordezkaritzarekin:

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Soraluzeko Udala P2007000I Iker Aldazabal Basauri Alkatea | Debako Udala P2003000C Gilen Garcia Boyra Alkatea | Eibarko Udala P2003100A Miguel de los Toyos Nazabal Alkatea | Elgoibarko Udala P2003300G Ane Beitia Arriola Alkatea | Mutrikuko Udala P2006000J Joseba Palenzuela Arrieta Alkatea |

Bi aldeek, kontratu hau sinatzeko behar den lege-gaitasuna aitortzen diote elkarri eta aldez aurretik ados jarririk, askatasun osoz hitzartzen dituzte ondokoak:

## ADIERAZTEN DUTE

Kutxa Ekogunearen lan ildo estrategikoetako bat Hizkuntza eta Kultura Aniztasuna da eta lan ildo honen baitan kokatzen da Kutxa Ekogunearen Hizkuntza-ekologia estrategia eta Euskararen Ginkana deituriko proiektua.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

Euskararen Ginkana –www.euskararenginkana.eus– euskararekin eta euskaraz dibertitzeko lehiaketa da. Lehiaketak ondorengo bi fase ditu:

1. Fasea: INTERNET BIDEZKO 4 FROGAK. Webgunean, astero taldeek burutu beharreko proba bat argitaratuko da eta aste bete izango dute taldeek erantzunak bidaltzeko.
2. Fasea: FINALA. Internet bidezko probetan puntu gehien lortzen dituzten lau taldeak pasako dira aurrez aurreko final egunera eta bertan erabakitzen da nor den talde irabazlea.

Euskararen Ginkana Orokorraren 6 edizio gauzatu dira jada eta, 2015ean, modu osagarrian, udal zein eskualde mailako Tokiko Euskararen Ginkanak egiteko aukera zabaldu zuen Kutxa Ekoguneak.

Debabarreneko eskualdeko Elgoibar, Deba, Mutriku eta Soraluzeko Udalek interesa azaldu dute 2019ko udazkenean Tokiko Euskararen Ginkana bat bere eskualdean burutzeko eta, Kutxa Ekogunearen adostuta, Debabarrenean DBH zikloa eskaintzen duten ikastetxeetako DBH4ko ikasleei egokitutako proposamena onartu dute. Hauek honela, Debabarreneko Udal taldeak eta Kutxa Ekoguneak elkarren arteko lankidetza arautuko duen kontratu hau adostu dute, ondorengo klausulen arabera.

## KLAUSULAK

**LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA**

Aurrez adierazitakoak oinarri hartuta, hitzarmen honen xedea, 2019 urteko “Debabarreneko Euskararen Ginkanaren 1. Edizioa” egitasmoa gauzatzeko Kutxa Ekogunearen eta Debabarreneko Udal taldearen egitekoak eta betebeharrak arautzea da.

**BIGARRENA.- KUTXA EKOGUNEAREN BETEBEHARRAK**

**Diseinuari dagokionez:**

- Aurkezpen batzarrean egitasmoa azaldu eta zalantzak argitzea.
- Euskararen Ginkana lehiaketaren estruktura eta kronograma landu eta egokitzea. (Kronograma – 1. Eranskina)
- Ginkanaren Online ataleko 4 probetako edukiak sortzea.

**Prestaketa eta exekuzioa, finalaren eguna bitartean:**

- Euskararen Ginkana webgunean Debabarreneko Euskararen Ginkana barneratzea eta gutxieneko taldeen izen-emate aldia amaitzean, Ginkanaren Online plataforma eta webgunea prestatzea.
- Ginkanaren komunikazio irizpideak zehaztea eta kanpainaren diseinu orokorra eta izen-ematerako oinarrizko hedapena egitea: Webgunean

ZIRRIBORROA - BORRADOR

difusioa, komunikazio euskarrien eta prentsa oharraren diseinu eta irizpideen zehaztea eta prentsa oharraren behin betiko gainbegiratua eta onartzea.

- Ginkanaren Online plataforma lehiaketan zehar kudeatzea.
- Finaleko edukiak eta probak sortzea eta proba bakoitzaren puntuazio irizpideak zehaztea.
- Finaleko probetarako baliabide materialak diseinatu eta sortzea.
- Finaleko espazioa ezagutu, azpiegitura beharrizanak aztertzea eta, behar izanez gero, dagokion teknikariarekin biltzea.

**FINALAri eta proiektuaren itxierari dagokionez:**

- Finaleko ekitaldiaren prestaketa eta dinamizazioa egitea eta hauek gauzatzeko kontratazioak (dinamizatzaile bat eta aurkezlea) egitea.
- Adostutako sariak Final egunean banatzea eta sariak kudeatzea.
- Proiektuaren ebaluazio txostena egitea.

**HIRUGARRENA.- DEBABARRENEKO UDAL TALDEAREN BETEBEHARRAK**

**Diseinuari dagokionez:**

- Eskualdeko Ginkanaren sustatzaile eta antolatzaileekin batzarrak lotzea eta Kutxa Ekogunearekin harremana izango duen eskualdeko harreman pertsona izendatzea.
- Eskualdeko ginkanaren publiko-xedearen ezaugarriak zehaztea eta Kutxa Ekoguneari idatziz helaraztea.

**Prestaketa eta exekuzioa, finalaren eguna bitartean:**

- Beharrezko ikusten badu, herrietako eta eskualdeko erakundeekin eta batzarrak lotu eta dinamizatzea.
- Ginkanaren zabalpenerako sortutako euskarriak herrietan eta eskualdean zabaltzea, balizko difusio gastuak bere gain hartzea eta Kutxa Ekogunearen komunikazio irizpideak jarraituaz, bere gainbegiratu eta behin betiko onarpena duen prentsa oharra zabaltzea.
- Lehiakideen izen-emateak kronograman zehaztutako epean lortzea eta Euskararen Ginkana webgune bidez izen-emateak bideratzea. Debabarreneko Udal taldeak, Debabarreneko udalen ordezkaritza izango du eta berak erabakiko du gutxieneko talde kopurua zein izango den. Kutxa Ekoguneak talde bakoitzean, 4-8 lehiakide izatea eta gutxienezko 15 talde eta gehienezko 30 izatea gomendatzen du.
- Kutxa Ekoguneari finalaren logistikarako beharrezko informazioa helaraztea: gunearen erreserba eta finalerako jarriko dituen baliabide eta ezaugarri teknikoak.
- Tokiko hedabideekin ginkanaren jarraipen mediatikoa bultzatzea: Prentsa oharraren zabalpena eta talde finalisten jakinarazpena.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

**FINALAren egunari eta sarien kudeaketari dagokionez:**

- Finalaren deialdiaren zabalpena egitea: parte hartzaileak eta eskualdeko ikastetxeak, tokiko erakundeak eta hedabideak.
- Kutxa Ekogunearen aurretiazko oniritzia izango duen Finaleko gune egokia eskaintzea eta Ginkanako Finalerako beharrezko gerta daitezkeen aseguruak bere gain hartzea, bai final egunerako eta baita aurretiazko entseguetarako ere.
- Finala gauzatzeko behar eta adostu diren baliabide tekniko eta materialak eskaintzea eta ordaintzea. Barruan sartzen da bertako soinu teknikari eta argi ekipoa erabili ahal izatea eta, beharrezko balira, baita aretoko aulkiak ekartzea eta atea zaintzea ere.
- Finaleko saria/ak ordaintzea. Sarien kopuru totala 1.200 € (BEZ barne) izango da.
- Eskualdeko ordezkariek sariak banatzea.

**ORDAINKETAri dagionez:**

Debabarreneko eskualdeko Eibar, Elgoibar, Deba, Mutriku eta Soraluzeko Udalek Kutxa Ekoguneari 8.900 € + %21 BEZa = 10.769€ ordainduko diote hitzarmen honetako 2. Klausulan zehazten diren betebeharrak burutzeagatik. Udalen arteko banaketa ondorengoa izango da eta Udal bakoitzak berari dagokion kopurua ordainketa bakarrean burutuko du:

- Aurrekontuaren zati bat, finkoa, 5 Udalek berdin: 600 € Udal bakoitzak (600 x 5 udal = 3.000€)

- Gainerakoa (10.769€ - 3.000€ = 7.769€), parte hartuko duten ikastetxeetako DBH4ko talde kopuruaren arabera banatuko da Udalen artean. (7.769€:26 talde = +300€/taldea)

- Sarien balio totala 1.200 € (BEZ barne) izango da eta Eibarreko Udalak hartuko du bere gain sariaren ordainketa, anfitrioia izango delako eta Finala bertan gauzatuko delako. Beraz, Eibarko aurrekontuari sariaren kopurua gehituko zaio. Sariaren banaketa ondorengoa izango da: 1. talde irabazlearentzako 800 € gordin eta 2. geratzen den taldearentzat, 200 € gordin. Bi sari hauei dagozkien atxikipenak ezarriko zaizkie. Bestalde, 3. eta 4. Sariak balio bera izango dute eta talde bakoitzak 100 €ko bonua jasoko du *Eibar Merkataritza Gune Irekia*ren bitartez. Edonola ere, aurrekontu honetaz gain, finaleko talde irabazleentzako sariak, Ginkanaren balizko difusio gastu gehigarriak edota finalerako erabiliko den gunearen egokitzapen eta erabileran gerta daitezkeen gastuak ere Debabarreneko Udalak ordainduko ditu.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

Herri bakoitzetik parte hartuko duten taldeen aurreikuspena ondorengoa da:

| | TALDEAK | EKARPENA | FINKOA | SARIA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| Eibar | 12 | 3.600 € | 600€ | 1.200€ | 5.400 € |
| Elgoibar | 6 | 1.800 € | 600€ | -- | 2.400 € |
| Deba | 3 | 900 € | 600€ | -- | 1.500 € |
| Mutriku | 3 | 900 € | 600€ | -- | 1.500 € |
| Soraluze | 2 | 600 € | 600€ | -- | 1.200 € |
| GUZTIRA | | | | | 12.000 € <br> Aurrek.: 10.769€ <br> Saria: 1.200€ <br> Gerakina: 31€ |

Kutxa Ekoguneak Kostu osoaren % 100a fakturatuko die Debabarreneko aipatu bost udalei adostutakoaren arabera eta ordainketa guztiak 2019ko abenduaren 15erako egingo dituzte. Epe honetan Debabarreneko Udal taldeko Udal batek edo batzuek beraiei dagokien zatia ordainduko ez balute, Debabarreneko Udal taldea izango da erantzulea, modu solidarioan, Kutxa Ekogunearen aurrean eta Kutxa Ekoguneak Debabarreneko Udal taldeari fakturatuko dio, gainerako Udalek ordaindu gabekoa, modu proportzionalean.

**BOSGARRENA.- IZAERA PERTSONALEKO DATUAN BABESA**

Euskararen Ginkanaren zerbitzua eskaintzeko Debabarreneko Udal taldeak jasotzen duen informazio eta material guztiak, izaera konfidentziala izango du efektu guztietarako. Debabarreneko Udalak behartuta egongo da, datu hauek, Kutxa Ekoguneak ezarritako irizpideen arabera erabiltzeko eta Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako araudiak ezartzen dituen betebeharrak jarraiki, Kutxa Ekogunea titularra den dokumentu eta fitxategietatik eratorritako datuak zerbitzu hau eskaintzeko soilik erabiltzeko, datu hauek kontratu honetan ezarritako egin beharretatik haratago ez erabiltzeko, eta beste pertsonei hauek ez komunikatu edo lagatzeko, ezta kontserbaziorako ere.

Bete beharreko zerbitzua eskaini ondoren, Debabarreneko Udalek Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako araudia aintzat hartuta, Kutxa Ekogunea titularra den fitxategietako datuak jasotzen diren euskarriak ezabatu edo itzultzeko konpromisoa

ZIRRIBORROA - BORRADOR

hartzen du, datu hauen kopiarik egin eta gorde gabe eta inongo kanpoko pertsona fisiko edo juridikori datu hauek ezagutzeko aukera eman gabe, Kutxa Ekogunearen berariazko baimen dokumentatua ez badu.

**SEIGARRENA.- LAGATZEKO DEBEKUA eta ETENDURAK**

Alderdiek ezingo dute laga, ez osorik ez partzialki, kontratu honetatik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak, kontrako berariazko eta idatzizko hitzarmen bat sinatu ezean.

Kontratu honen zatikako edo osoko etendurak, Kutxa Ekogunearen erantzukizuna izan ezean, Debabarreneko Udal taldeak hartuko ditu bere gain, eta fase bakoitzari dagokiona eta hitzartutakoa ordaindu beharko du.

Kutxa Ekoguneak ezingo du Ginkanaren finala bertan behera utzi justifikaturiko arrazoiarengatik edo demostratu daitekeen bistako eragozpena tarteko ez bada eta, bestela, finalari dagokion dirua itzuli beharko dio Debabarreneko Udal taldeari. Era berean, Debabarreneko Udal taldeak ezin izango du bertan behera utzi Ginkanaren finala eta, finala baino hamabost egun lehenago horrela eginez gero, Kutxa Ekoguneari aurrekontu osoaren %80a ordainduko lioke. Finalaren egunean edo bezperan finala bertan behera uztea erabakiko balu, behin betiko aurrekontuaren %100 ordainduko dio Kutxa Ekoguneari.

**ZAZPIGARRENA.- IRAUPENA eta IRAUNGITZEA**

Kontratu hau bi aldeen sinadura egunean bertan sartuko da indarrean eta bi aldeei dagozkien betebeharrak burututakoan automatikoki iraungiko da. Ginkanaren betebeharrak burututa eta finala bukatu eta bi hilabeteko epean, ebaluazio bilera burutuko dute bi aldeek eta bilera honetan, besteak beste, Ginkanaren edizio gehigarrietarako aukerak aztertuko dira.

Hitzarmen hau iraungitzeko arrazoiak hauek izango dira:

- Jasotako ekarpen ekonomikoak hitzarmen honen lehenengo klausulan zehazten den xedea ez den beste helburuetarako erabiltzea.
- Hitzarmen honetan biltzen diren kondizioak, epeak eta betebeharrak ez betetzea.
- Alderdien aho bateko akordioa edo legeak ezartzen duen beste edozein arrazoi.

Bi aldeek kontratu honetan ezarritakoa betetzera behartuta daude eta horrela erantzuten dute. Arau urratzerik gertatzekotan eta elkarrizketaren bitartez bideraezinak izango balira, dagokion lurraldeko organo eskudunaren aurrean erantzungo dute bi aldeek

ZIRRIBORROA - BORRADOR

Eta adostasunaren eta onarpenaren adierazgarri, kontratu hau sinatzen dute adierazpen eta klausula guztiak berretsiz, bi aletan eta ondorio bakarrerako, hasieran adierazitako lekuan eta datan.

| ALDE BATETIK: | BESTE ALDETIK: |
|---|---|
| Kutxagestion Zerbitzuak, S.L.U.ren ordezkaria<br>Izp.: Ander Aizpurua<br><br>44168858A ANDER AIZPURUA (R: B75146043)<br>Firmado digitalmente por 44168858A ANDER AIZPURUA (R: B75146043)<br>Fecha: 2019.08.26 09:38:07 +02'00' | Soraluzeko Udaleko alkatea<br>Izp.: Iker Aldazabal Basauri<br><br><br>Debako Udaleko alkatea<br>Izp.: Gilen Garcia Boyra<br><br><br>Eibarko Udaleko alkatea<br>Izp.: Miguel de los Toyos Nazabal<br>MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL<br>Firmado digitalmente por MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL<br>Fecha: 2019.07.18 09:41:12 +02'00'<br><br>Elgoibarko Udaleko alkatea<br>Izp.: Ane Beitia Arriola<br>ANE LUKENE BEITIA ARRIOLA<br>Digitalki sinatuta norengandik: ANE LUKENE BEITIA ARRIOLA<br>Data: 2019.07.18 14:14:04 +02'00'<br><br>Mutrikuko Udaleko alkatea<br>Izp.: Joseba Palenzuela Arrieta<br>JOSEBA PALENZUELA ARRIETA<br>Firmado digitalmente por JOSEBA PALENZUELA ARRIETA<br>Fecha: 2019.08.06 10:09:20 +02'00' |

ZIRRIBORROA - BORRADOR

1. Eranskina: Kronograma adostua

**EUSKARAREN GINKANA: DEBABARRENEKO**

1. EDIZIOA 2019

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **IRAILA** | | | | | | |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 16 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | | | | | | |
| **URRIA** | | | | | | |
| | | | | | | 1 |
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |
| **AZAROA** | | | | | | |
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | |
| **ABENDUA** | | | | | | |
| | | | | | | 1 |
| 4 | 5 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 11 | 12 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 18 | 19 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 25 | 26 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |

PRESTAKETA

PRENTSA OHARRA

Urriak 3 (behin behinekoa)

IZEN EMATEA

Irailak 23-urriak 22

PROBAK

1.proba: urriak 23-30

1.proba:urriak 30-azaroak 6

3.proba: azaroak 6-13

4.proba: azaroak 13-20

FINALISTAK

Jakinarazpena: azaroak 22

FINALA

abenduak 1

JAI EGUNAK

Azaroak 1: Santu Guztiak.

BALORAZIOA

Abenduak 11-20

ZIRRIBORROA - BORRADOR

Egiaztapen Kode Segurua / Código Seguro de Verificación: **ZIRRIBORROA - BORRADOR**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=02910***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=02910***

Egiaztapen Kode Segurua / Código Seguro de Verificación: **ZIRRIBORROA - BORRADOR**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=02910***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=02910***